

Eta esango dute artikulu bat irakurtzen ari direla...

**Miren AZKARATE
BADIOLA**

Garraio publikoa aldian-al-dian erabiltzen duten horietakoa naiz betidanik. Gehienbat autobusa eta noizean behin trena ere bai. Bidaia horiek betidanik oroitzen ditut liburu batekin eskuetan irakurtzen, minutu horietan zehar nire munduan sartu eta horrela aprobetxatzeko. Orain aitortu beharra daukat pixka bat mareatzen naizela, ez dakit adina izango den edo beste azalpenik ote duen, aztertu beharko dut.

Aspaldian, baina, ez dut ikusi inor liburu bat edo egunkaria paperean irakurtzen, eta azkenaldian, horretan jarri

nahi izan dut arreta. Azkenean, aurreko batean bat ikusi nuen arte. Hunkitu eta guzti egin nitzen! Malkoa justu-justu begi ertzean nuela geratu nintzen aurrean ikusten ari nintzen eszenarekin. Noiztik halako egoerarik parez pare suertatu gabe?

Duela urte batzuk arrunta zen zerbait orain pantailen eta teknologia berrien erruz estintzioan dagoen zerbait bilakatu da, edo bilakatu dugu. Liburu edo egunkariak (hemen ere) mugikorrenge-tik ordezkatu ditugu, niri pertsonalki beldurra emateraino. Zeren eta ez da soilik ez dugula paperean irakurtzen, ez,

ez... Ez dugu ondokoarekin hitz egiten, ez dugu leihotik begiratzeko eta paisaia ikusten, eta urtebete eskas duten haurrei ere 15 minutuko bidaia batean ez diegu abesten... Dena pantaila zikin batek ordezkatu du! Helduenengandik haur jaioberrienganaino, adinaren araberako bereizketarik gabe! Eta esango dute artikulu bat irakurtzen ari direla...

Ez dut esan nahi hobekuntzarik ez dutenik ekarri pantailak eta deitu nazazue 'erromantikoa' paperaren gorazarre egiteagatik, baina autobusetan ere gai honen eskuetatik ihes egin digula iruditzen zait. •

Zaintza

**Amagoia MUJICA
TELLERIA**

Zaintza. Aspaldiko ekintza da, betidanikoa. Baina hitzak berria dirudi. Eta hitz berriekin gertatu ohi den bezala, beldur naiz gastatu arte erabiliko dugula, azaletik gastatu, mamira iritsi gabe.

Irakurketa argigarria eta benetan interesgarria izaten ari da "M ama* eme* ume*". Zorionak Estitxu Fernandez eta Erika Lagomari. Amatasunaz eta zaintzaz, oso modu anitzean eta epaiketa kutsurik gabe. Uste dut batzuetan ez dugula amatasunaz hitz egiten epai-tuak izateko beldurra dugulako. Ama "onak" nolakoa izan behar duen gehie-gitan entzun dugu eta apenas kabitzen

da inor neurri estu horietan. Horregatik akaso lasaitasuna ematen du ama izateko modu asko daudela konturatzeko, eta denak direla ama onak eta ama txarrak, eta bi gauzak aldi berean.

Gureak ere esaten du, amatasuna bizitza osorako dela. Seme-alabak handitu eta zahartu arren, haiek zaintzeko eta babesteko beharra -itolarria batzuetan- azken unera arte sentitu ohi duela amak. Zaindua izan behar duenean ere, ingurukoak zaintzen.

Hori gure etxean ikusitakoa naiz. Amona zenarekin arratsaldea ospitalean eman eta haren kezka bakarra etxera joateko, umeei afaria eman

beharko niela. «Zu hemen atso zahar hau zaintzen eta umeak etxean amaren zain». Eta beste emakume batzuei ere sumatu diet zaintzeko larri hori. Beren azken uneetan, zaintza behar handia dutenean, emakume asko kezkatuago egoten da «ingurukoei ematen dien lanaz» bere osasun makalaz baino. Beti besteei begira, beti besteen-tzat. Zein tristea den konturatzea noraino sartua dugun emakumeok bigarren mailako herritar izatearen zama hori. Hori ez da azalekoa, sustrai sendoak ditu eta azalaren azpiraino iristen da, batzuetan mina ematen duen ziztada forman. •